



## BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

### “AUTODESK LIZENTZIAK”

#### 1.- Kontratuaren xedea

Agiri honen xedea da Autodesk AutoCAD softwarearen eta lotutako produktuen lizentziak berritzeko kontratazioa egitea, eta kontratuaren indarraldian bermatuko da zerbitzuaren jarraitutasuna, euskarri teknikoa eta bertsio berrietarako sarbidea.

Kontratuan sartzen dira:

- Lehendik dauden lizentziak berritzea
- Lizentzia berriak zabaltzea
- Lizentziei lotutako laguntza- eta mantentze-lanak egiteko zerbitzuak

#### 2.-Proiektuaren irismena.

Agiri honen xedea zera da: finkatzea 2027an Autodesk produktuak erabiltzeko lizentziak hornitzeko eta horien mantentze-lanak egiteko zerbitzuak bete behar dituen preskripzio teknikoak.

Gaur egun, BBUPk kontratu eta lizentzien zerrenda hau du:

| Kontratua    | Produktua                                                                                                                             | Serie-zk.    | Lizentziak | Iraungitze-data |
|--------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|------------|-----------------|
| 110002954640 | AutoCAD LT Commercial Single-user Subscription Renewal Switched From Maintenance (Switched between May 2019 and May 2020 and Ongoing) | 568-15305698 | 5          | 2027-01-31      |
| 110003384904 | AutoCAD - including specialized toolsets AD Commercial Single-user ELD Subscription Switched From M2S Multi-User 2:1 Trade-In         | 570-99500456 | 4          | 2027-01-31      |
| 110003384904 | AutoCAD - including specialized toolsets AD Commercial Single-user ELD Subscription Switched From M2S Multi-User 2:1 Trade-In         | 570-99500555 | 10         | 2027-01-31      |
| 110003384915 | AutoCAD - including specialized toolsets AD Commercial Single-user ELD Subscription Switched From M2S Multi-User 2:1 Trade-In         | 570-99501347 | 4          | 2026-12-31      |
| 110003384915 | AutoCAD LT 2021 Commercial New Single-user ELD Subscription                                                                           | 571-73986657 | 4          | 2026-12-31      |
| 110003546405 | AutoCAD - including specialized toolsets AD Commercial Single-user ELD Subscription Switched From Multi-User 2:1 Trade-In             | 571-74431273 | 2          | 2027-04-02      |
| 110003546416 | Architecture Engineering & Construction Collection IC Commercial Single-user ELD Subscription Switched From Multi-User 2:1 Trade-In   | 571-74431075 | 2          | 2027-04-20      |

Horri lizentzia gehigarri hauek gehitu beharko litzaizkioke:

| Produktua                                                          | Lizentziak |
|--------------------------------------------------------------------|------------|
| AutoCAD LT 2027 Government New Single-user ELD Annual Subscription | 4          |



Adjudikaziodunak hauek eman beharko ditu:

- Hauen egungo harpidetzak berritzea:
  - AutoCAD (toolset espezializatuak barne, hala badagokio)
  - AutoCAD LT
  - AEC Collection
- Lizenzia gehigarriak zabaltzea, adierazitakoaren arabera.
- Lizenzien tipologia:
  - Harpidetza nominala (single-user)
  - Sarbidea Autodesk Account bidez

Lizenziak hauek izango dira:

- Autodesk fabrikatzailearen originalak
- Indarrean dagoen harpidetza-modalitatean
- Ingurune korporatiboarekin bateragarriak

Lizenziak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak gaur egun Autodesk enpresan duen kontuaren barruan hornituko dira.

### **3.- Gutxieneko betekizun teknikoak**

#### **3.1.- Lizenziak**

Lizenziek hauek bete beharko dituzte:

- Softwarearen azken bertsioa
- Harpidetzan zehar etengabe eguneratzeko eskubidea
- Toolset espezializatuertako sarbidea (kontratutako produktuaren arabera)
- DWG formatu estandarrekiko bateragarritasuna

#### **3.2.- Gutxieneko funtzionaltasunak**

- CAD 2D diseinua (nahitaezkoa AutoCAD LTrako)
- CAD 2D/3D diseinua (AutoCAD osoa)
- Hauetarako sarbidea:
  - Mahaigaineko aplikazioa
  - Web/mugkorreko aplikazioa
- Beste CAD/BIM sistema batzuekiko elkarreragingarritasuna

### **4.- Barne hartutako zerbitzuak**

Adjudikaziodunak hauek eman beharko ditu bere kontura edo fabrikatzailearen bidez:

#### **4.1.- Euskarri teknikoa**

- Euskarria gaztelaniaz
- Gorabeheren kudeaketa
- Arazo teknikoak konpontzea

#### **4.2.- Mantentze-lanak**

- Eguneratzeak eta adabakiak barne, kostu gehigarririk gabe
- Lizenzien kudeaketa eta administrazioa

#### **4.3.- Laguntza administratiboa**

- Berritzeen kudeaketa



- Fabrikatzailearekin/banatzailearekin harremanetan jartzea
- Lizenziak optimizatzeko aholkularitza

#### **5.- Entregatzekoak**

Adjudikaziodunak hauek entregatu beharko ditu:

- Lizenzien ziurtagiria
- Kudeaketa-atarirako sarbidea (Autodesk Account)
- Dokumentazio teknikoa eta erabiltzailearena
- Iraungitze-datei buruzko informazioa

#### **6.- Hornidura-baldintzak**

- Entrega elektronikoa
- Zerbitzua etenik gabe jarraitzeko bermea

#### **7.- Proiektuaren beste alderdi tekniko batzuk.**

Emandako ekipamenduaren eta lizenzien jabea izan behar du BBUPK, eta hala agertu behar du ekipamendu horren fabrikatzailearen datu-baseetan.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 12an

Kontratuaren kudeatzailea  
David Alonso Villafáfila

Informatikako zuzendariordea  
Santiago Guillén López